

Larrialdiko laguntza Gazako biztanleentzat

UNRWA-Nazio Batuen Ekialde Hurbileko Palestinar Errefuxiatuentzako Laguntza Bulegoaren proiektu batera bideratuko da.

AMVISAK 50.000 € jarriko ditu larrialdiko laguntza gisa, Gazako biztanleen oinarrizko osasun beharrei aurre egiteko, 2024ko ekitaldian Garapen Lankidetzara bideratutako bere aurrekontu partidaren kontura.



Horrela, bada, aldeko erantzuna eman dio Larrialdietarako Arabako Funtzsaren batzorde teknikoak egindako txostenari; batzordea Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko Lankidetzara Zerbitzuek osatzen dute, eta UNRWAK egindako eskaera bati erantzuten dio, **“Palestinako errefuxiatuentzako kit higieniko familiarren hornidura Gazako Zerrendan, 2023ko urriko indarkeria eskaladaren ondorioz”** proiektua gauzatzeko. Proiektuak 12 hilabeteko iraupena du, eta Zerrendako biztanleen baldintza higieniko-sanitarioak okertu izanak eragindako beharrak arintzea du helburu, edateko urik gabe baitaude, eta gaixotasunak transmititzeko arrisku handiari aurre egin behar diotelarik.

Hala, egungo larrialdi testuinguruan, AMVISAREN ekarpenari esker, guztira **2.240 kit higieniko familiar** banatzea espero da. 487 familia inguruk hilean behin jasoko dituzte kitak, 3 hilabetez, desplazatutako 2.240 pertsona ingururen mesedetan, eta horietatik 1.165 emakumeak izango dira (%52). UNRWA gaur egun banatzen ari den kitek elementu hauek dituzte: xaboi pastilla, toalla, xanpua, hortzetako eskuila, hortzetako pasta, toalla sanitarioak, haurtxoentzako toallaxto hezeak, eskuazpi desinfektatzaileak, garbitegirako detergente hautsa, etxerako lixiba, ontziak garbitzeko detergente likidoa, esponja eta zabor poltsak.

Uraren kudeaketa hobetzen Los Herran Berria proiektuan

Herrandarren kalea eta bertako ingurua eraberritzeko proiektuan jasotako jardueren barruan, AMVISAK esku hartzeko eremuko hornidura eta saneamendu sarearen eta, partzialki, Jose Mardones kalearen berrikuntza orokorrari ekin dio, eta euri uren kudeaketa hobetzeko irtenbideak gehitu ditu.

Lanen artean daude fibrozementuzko eta burdinurto grisezko hodiak kentzea, eta kale horien hodi nagusiak eta hornidura sistemaren konexioak berritzea. Saneamendu sistemari dagokionez, proiektatutako soluzioa, funtsean, Herrandarren, Jose Mardones, Logroño, Sierras Alavesas eta Hortaleza kaleetako kolektoreak berritzea da, zangak irekiz garatutako sistema klasikoa erabiliz zein lehendik dauden hormigoizko kolektoreen barruan mahuka bidez berrituz. Putzuak ere berritu eta eraikiko dira, beharrezkoa den lekuetan.

Azaleko drainatze sarea

Euri urak kudeatzeari begira, proiektua gauzatzeko erabilitako **zolandura iragazkorreko** beharrezkoa izango da euri ura kanalizatzeko eta biltzeko sistema berritzea, horren barruan ohiko hustubideak eta bilketa linealeko sistemak ere sartuta.

Hiriko estolderia sistemara doan euri karga murrizteko, zenbait lorategi eremutan drainatze jasangarriko sistemak jarriko dira (DJHS), lurlean ahalik eta euri emaririk handiena infiltratzeko.

Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak (DJHS) azaleko elementuak dira, iragazkorrak, euri ura iragazteko, atxikitzeko, garraiatzeko, metatzeko, berrerabiltzeko eta lurrera zuzenean infiltratzeko. Kategoriatan sartzen dira zolandura iragazkorrak, euri lorategiak eta infiltrazio deposituak, besteak beste.



Infiltrazio eremu horiek urbanizazio berriaren paisaian integratuko dira. Lurperatutako biltegiak izango dituzte, euri uren jariatzeak sortutako emari gehienak metatzeko, kutxa edo bloke drainatzailez osatuak, eta horietatik infiltratuko da ura lurlean. Gainera, zolandura aglomeratuaren gaineko hustubide gehienak DJHSen aurreko hiru putzu hidrodinamikoetara konektatuta egongo dira, horien funtzioa izanik jariatzean dauden hondakinak, sedimentuak, olioak eta koipeak atxikitzea.

Esku hartze horietara guztietara bideratutako aurrekontua 2,8 milioi eurokoa da, BEZik gabe.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org



Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko Udal Urak, A.B.